

Yankien IV. Flotak interbentzioen mamua berpiztu du

AEBetako Gobernuak erabaki garrantzizkoa abiarazi du uztail honetan: inperioaren indar militarren artean eginkizun garrantzizkoa izango duen IV. Flota hasi da antolatzen. Geopolitikaren ikuspegitik zeresan handia emango du, eta Hego Amerikan kezkatzeko motiboak dauzkate.

AMERIKETAKO EZKERTIAR JENDEAK

ez dio ongietorri handirik egin albis-teari. Batzuek patxada handiagoz eta beste batzuek haserreago, baina denek ere kezkatuak hartu dute uztailaren lehenean AEBetako armadak martxan jarri duen antolakizun berria: dagoneko abian da IV. Flota, yankiei Kari-be eta Hego Amerikako itsasoak kontrolatuko dizkiena.

Protestak ugariak izan dira, idatziz-koak eta kalekoak, apirilean AEBek jakinarazi zutenetik 1950ean desager-tutako IV. Flota berpiztuarazi behar zutela. Hona aitortutako helburuak: “Eskualdean itsas segurtasuneko ope-razioak burutzea AEBen helburuak zaintzeko eta elkarlan eta segurtasu-nezko jardueri laguntzeko, egonkor-tasuna sustatzeko eta armada aliatue-kin batera edozein erasori aurre egiteko, inguru osoan bakea, egonkor-tasuna eta oparotasuna bultzatzeko”. Erraldoiaren mehatxu edulkoratuak iruditu zaizkie hitzok askori.

Kubako *Gramma* egunkarian Guille-rmo Rodríguez del Pozo jeneral erretiratuak *La cuarta flota, ¿una reac-ción tardía?* artikuluan bildu du armada kubatarraren analisisa. Batetik, opti-mismoa yankiak berandu dabilatzalako. “Gure iritzian, IV. Flota berriz abia-razteak esanahi garrantzizkoa dauka: AEBetako gobernuak berandu erreak-zionatu du Latinoamerikako eta Kari-beko herrien ideia iraultzaileen aurre-

rakada geldiezinaren kontra, herriok nekatuta baitaude nazioarteko orden bidegabe eta hiltzaileak ezarri dien zampaketaz”. Bestetik kezka: “Horrela erakusten du bere harrokeria inperio-ak, ez duelako desagertu nahi eta prest dagoelako ez desagertzeagatik indar militarra usatzera”.

Esan liteke lehendik ere klase guz-tietako isolamendu eta presioekin itota daukaten Kubak ez daukala Was-hingtongo erabakiokin lehenaz gain kezkatzeko motiborik. Aldiz, Vene-zuelako presidente Hugo Chavezek zuzenean proiektu bolivarianoaren kontrako mehatxutzat salatu du neu-rria. Horretan ados etorri zaizkio Hego Amerikako ezkertiar gehienak.

IV. Flotak berez ez dakar AEBeta-ko armadaren barruan tresna gehiago sortzea, lehendik munduko armada hegemonikoak dauzkan baliabideak berriz antolatzea baizik. Ez da proiektu estrategiko berria, baina bada Estatu Batuak urteotan beren geopolitika alorrean egiten ari diren aldaketa oso mamitsuen adierazgarri.

AEBek daukaten indar militarren artean, operatibitateari dagokionez Itsas Armada edo Flota bi multzo handitan daukate banatua. Atlantiko-ko flota dago batetik, honek bere baitan hartzen dituelarik Bi eta Sei zenbakiak daramatzatenak, Seigarre-na funtsean Mediterraneoan kokatua eta Europaz okupatzen dena. Itsas

Mark Sebastian argazkilariak ipini du irudi hau Interneten: AEBetako kai batean hegazkin-ontzi erraldoia datza bestelako baporeen ondoan. Gaur bi erreaktore nuklearrek berotutako motorrak daramatzaten ontzietako banaren inguruan egituratzen dira armada yankiaren sei flota nagusiak. Sei dira, uztailan berpiztu duten IV. Flota kontuan hartuta. Honek Florida estatuko Jacksonville portu militarrean edukiko du egoitza nagusia, buruzagi Joseph D. Kernan almirantea duela. Fidel Castrok artikuluko batean salatu berri du flota berriaren sorrerak Kolonbiak Ekuadorren FARCen atzetik egindako inbasioarekin lotura daukala. Aditu askok Kubaz gain Venezuela eta Boliviako agintarien kontrako meatxutzat hartu dute. Brasilgo senatuak tresna honen sorrera publikoki gaitzetsi du.

Bareko Flotak biltzen ditu hiruga-rreren, bosgarren eta zazpigarrena. Laugarren Flota erantsiko diote hemendik aurrera.

Atlantikoko Flotako beste bietatik kendutako jende, bapora eta hegaz-kinak bilduko dira IV. Flota berrian. Zeintzuk? Oraingoz ez da jakina. Aditu batzuen ustez USS George Washington hegazkin-ontzi nuklea-rra izango du tresna nagusi. Eskolta moduan zenbait itsasontzi eta itsas-peko edukiko ditu. Taldean erasora-ko bi itsasontzi joango dira, horietako bakoitzaren barruan infanteriako 1.870 marinela, *Harrier* motako bost hegazkin, tropak garraiatzeko 42 helikoptero, itsaspekoen kontrako sei helikoptero, tropak lurreratze-ko hiru txalupa, eta abar. Multzoa osatuko da destruktore batzuekin, fragatak, itsaspeko gehiago eta logistika bermatzeko bapora gehiago.

“Atzeko baratzea” zaindu berriro

George Bushen agintaldiaren bukac-ran hartutako erabaki honen garran-tzia erlatibizatzen dutenek diote AEBek ez dutela IV. Flotaren beha-rrik izan Hego Amerikan behin eta berriro eskua sartzeko. Izatez, gaine-ra, IV. Flota 1943an sortu zuten naziei aurre hobeto egiteko, eta 1950ean desegin zuten berriro.

Hegoaldeko herrialdeetako eko-nomia eta politika kontrolatzeko



azken mende osoan ez dute faltan izan gringoek ez indarrak ez justifikazio teorikorik ere “Monroe Dotrina” fundatu zenetik. Ehun baino aldi gehiagotan interbenitu dute, edozein herrialdetako agintariak mugiarazi edo kentzeko XX. mendean zehar.

Gaur AEBek tropak hedatuak dauzkate Dominikar Errepublikan, El Salvadorren, Guatemalan, Hondurasen, Kolonbian, Perun, eta batik bat Panaman. Azken hamarkadan garrantzia berezia hartu du Kolonbiak iparramerikarrentzako. 800 militar dauzkate han, gehi beste 600 aholkulari kontratatu. 1999an teoriar koka errotik suntsitzeko hitzartutako *Plan Colombia* urratsez urrats bihurtu da Kolonbiako armada eta indar paramilitarrak finantzatzeko plan

orokorra. Eta AEBek beren politikaren lehentasuntzat mundu mailako borroka antiterrorista globala aldarrikatu dutenez, FARCekeo gerrilla suntsitzeko operazioek berebiziko garrantzia hartu dute. *Plan Colombia* dela eta 2004an AEBek Bogotari 463 milioi dolar eman zizkioten.

Ez da harritzekoa orain Washingtonek IV. Flota berpiztu duenean kexuen azaldu dena Venezuelako presidente Hugo Chavez izatea. “Dudarik gabe, gure kontrako mehatxua da” deklaratu du, argituz Venezuelak badaukala interes berezia yankientzako, beren sistema politikoaz aparte: lurpean daukan petrolio.

Guillermo Rodríguez del Pozo jeneral kubatarraren ustean, AEBek hiru ardatzen inguruan hartu dute IV.

Flota sortzeko erabakia. Bat: “Latinoamerikan azken urteotan masen kontzientziatzea ari da gertatzen eta ondorioz leku batzuetan buruzagi ezkertiarak eta bestetan aurrerazaleak sortu dira, batasunerako eta elkarlanerako joera dutenak, eta fruitu batzuk ikusten dira dagoeneko”. Bi: Afganistan eta Iraken ez atzera ez aurrera harrapatuta, Iran eta Siriari mehatxuka, Errusiarekin haserretuta eta etxean krisi ekonomikoaz ito beharrean, yankiek ez dute ondo zaindu beren *patio trasero* delakoa. Hiru: *patio trasero*an agertu dira gas eta petrolio kopuru handitan, ahaztu gabe Ameriketako hegoaldean ekoizten diren janariak eta Amazonaseko bioaniztasun izugarria.

Raul Zibechi kazetari eta idazle argentinarrak analisi hori osatu du: “Eskualdearen eta munduaren karta berriro marraztu nahi dute Inperioak eta multinazionalak, aberastasunak dauden parajeetatik edo monolaboreen bidez lehengaiak sortu ditzaketenetatik herritarrak kanporatuz, agintari deserrosoak edo ustelkeriaz edo bortxaz erauziz. Engranaje horretako pieza da IV. Flota”.

Jeneral kubatarrak gogorarazi du AEBetako Hego Komandoko buru James W. Stevensonek esana: “Gure ontziak barneratuko dira Hego Amerikako ibai handietan, betiko ur urdinetatik baino gehiago nabigatuko dute ibaietako ur arreetatik”. Hitzon antzeko hotsa izan behar dute inbasioek. ■

www.argaia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Konfiantza delako garrantzitsuena

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, etengabe produktu berriak eta zerbitzu berriak bilatzearen bidez.

ZINKUNEGI OPTIKA

Hermani Kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 624

G A R A N T I A